

7. IKASGAIA. APLIKAZIO EREMUA

I. ARAUDIA

Espainiako Konstituzioa.

Kode Zibila.

3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa (*EHAA* 1992ko abuztuaren 7koa).

3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez (*EHAA* 1999ko abenduaren 30ekoa).

II. OINARRIZKO IDEIAK

Legeak non eta nori aplikatu zehaztu behar da ondoren: lurralde-eremua eta pertsona-eremua. Gipuzkoaren kasuan, gainera, araua zein kasutan bakarrik aplikatuko den zehazten da: eremu funtzionala.

I. LURRALDE EREMUA

1. Araba

Araban bereizi egin behar dira: Aiarako Forura meneratutako lurraldea; eta Bizkaiko Forura meneratutako udalerriak.

1.1. Aiarako forua

Haren lurralde-eremua arau hauek zehazten dute:


(1) Legeko 131. atalak, Aiarako Foruak indarra izan duen lurraldea biltzen du: *Aiarako Forua, Aiara, Amurrio eta Okondo udalerrri osoetan eta Artziniega udalerriko Mendieta, Erreta-Tutera, Santa Koloma eta Zollo Guti herrietan ezartzen da.*

(2) Legeko 132.2 atalak, gero, barruti horien defentsarako araua aurreikusten du: *Udalerrri forugabe bati udalerrri forudunen bat batzen bazaio edota udalerrri forudunen baten zati bat banatzen bada, horrek ez dio eragingo batutako lurraldean nahiz banatuan ezargarri zen zuzenbide zibilari.*

Historian zehar Aiara hitzak adiera desberdinak izan ditu, aldi berean gainera: udalerria, bailara, Jaurgoa, koadrila, ermandadea.

Egun indarrean dagoen antolaketa politiko eta juridikoaren arabera, bereizi egin behar dira:

(1) Aiarako Koadrila: Amurrio, Artziniega, Aiara, Laudio eta Okondo.



(2) Aiarako Udala: udaletxea Arrespalditzan du eta 24 hirigunek osatzen dute, besteak beste, Beotegi, Etxegoien, Luiaondo, Llanteno, Maroño, Menagarai, Menoio eta Kexaak.

1.2. Bizkaiko forua

Legeko 146. atalaren arabera:

1. *Laudio eta Aramaio udalerrietan Bizkaiko Forua da ezargarri, Bizkaia Lurralderako bereziki ezargarri izan daitekeen lurralde-eremuaren zehaztapenari dagozkion erabakiak salbu.*

2. *Bizkaiko Forua ezartzerakoan herritasun zibilak aginduko du Laudio eta Aramaio udalerrietan.*

1.3. Zabaltzeko aukera

Legeko 132. atalaren arabera:

Udalerrri bat edo batzuk batzen bazaizkio Aiarako Forua ezargarri duen udalerriren bati, Aiarako Forua hedatuko zaio udalerrri batu berriari.

Udalerrri forudunetakoren batek bat egiten badu udalerrri foru-gaberen batekin, Aiarako Forua izango da ezargarri udalerrri berri horretan.

2. Bizkaia


2.1. Bikoiztasuna

Bizkaian, bi sistema zibil bizi izan dira elkarrekin, lurraldearen arabera banatuta. Batean foru-legea aplikatuko da eta, bestean, lege komuna –Kode Zibila, alegia-.

Bikoiztasun hori agerian geratzen da testu historikoetan. Horregatik, esate baterako, zin egiteko testuak hauxe dio:

Yo, Señor de Vizcaya juro que bien y verdaderamente guardaré y mandaré guardar todas las libertades, franquezas y privilegios, usos, costumbres, que los Vizcaínos, así de la tierra llana como de las villas y ciudad, y Encartaciones y Durangueses de ella tuvieron hasta aquí y en la manera que ellos tienen y quieren.

2.2. Eremua



Legeria bata eta bestea zein lurraldetan aplikatuko den zehazteko, legeriko arauak hau agintzen dute:

(1) Lehenik, arau nagusia finkatzen da: *Foru honek, Bizkaiko Lurraldeko berezko legeria zibila denez, bere osotasunean izango du indarra Lur Lauan (EHFZZLko 5. atala).*

(2) Adierazpen horrek, beste zehaztapen bat egin beharra ekartzen du: *Lur Laua deritza Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hirietako eta Urduña ziutateko alde foru-gabekoa eta Bilboko gaur eguneko udal mugarte osoa kanpoan utzita. Kanpoan utzitako lurraldean legeria zibil orokorra izango da ezargarri, Foru hau ezargarri den guztietan izan ezik (EHFZZLko 6. atala).* Kontuan izan hiribilduak eta hiria sortzeko foruek zutela indarra harreman zibilak arautzeko, Bizkaiko forua baztertuz, baina herrian edo hirigunean bertan bakarrik, eta ez beren landa-lurretan.

(3) Aipatzen diren udal horietan, udalerrriaren zati bat izan daiteke foruduna eta beste zatia foru-gabea: *Aurreko atalean aipatutako lurralde foru-gabekoa hiri*

bakoitzaren jatorrizko hirigunearen gaur eguneko lurak eta Foru hau indarrean sardadinean indarreko hirigintza-planen arabera "hiri-lur" bezala sailkatuta egon daitezen bere albokoek osatuko dute (EHFZZLko 7. atala).

(4) Lurralde foruduna zehaztu ostean, ondoren hirigintza-planak kalifikazio juridikoa aldatzeak ez du eraginik izango alor zibilean: *Hirigintza-planen osteragoko aldaketek ez dute aldaraziko lurralde foru-gabekoaren luze-zabalera (EHFZZLko 8. atala).*

(5) Era berean, udalbarrutien aldaketek ere ez dute eragin zibilik izango: *Administrazioak egindako Bizkaiko udalen muga-aldaketek ez dute aldaraziko lurraldeotan ezarri beharreko Zuzenbide Zibila. Hiriren bati erantsirik dagoen antzina Elizate izandakoren bat Hiri horretatik bananduko balitz, berez eta besterik gabe berreskuratuko luke zeukan jatorrizko elizate-izaera (EHFZZLko 9. atala).*

(6) Udalerriko lurralde zibilak mugatzea grafikoki jasotzen da: *7. atalean ezarritakoaren ondorioetarako, forurik gabeko Bizkaiko Hirietako Udalek Lege hau argitaratzen denetik hiru hilabeteko epea dute jatorrizko hirigunearen gaur eguneko lurak eta indarreko hirigintza-planen arabera "hiri-lur" bezala sailkatuta egon daitezen bere albokoak zehaztuko dituen plano egiteko. Aipatutako Udalek egin beharreko planook Foru Aldundira bidali behar izango dituzte, eta honek Batzar Nagusietara bidaliko ditu, behin-betikotasunez onartu ondoren euren argitalpena aginduko dutela. Erabaki honetan aipatutako planook onartu ondoren, kopia bana igorriko zaie Zuzentza Auzitegi Nagusiari eta dagokion Udalari, nahi dezatenen eskura egon daitezen. (EHFZZLko Xedapen Gehigarria).*

Bizkaiko Batzar Nagusien Erabakia, 1994ko maiatzaren 4koa: "Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia uribilduen, Orduña uriaren eta gaur eguneko Bilboko udalerriaren forudun ez diren lurralde-mugak, honegaz batera doan eranskinen agertzen diran grafikoen arabera, onartzea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzko uztailaren 1eko 1992/3. Legearen 7. atalean eta Lehenengo Erabagi Gehigarrian ezarritakoaren ondorenetarako".

2.3. Zabaltzeko aukera

Lurraldearen inguruan betidanik egon diren arazoak konpontzeko tresna bat sortu zuten jadanik 1630. urteko Konkordia edo Elkartasun-itunean, hiribilduei Bizkaiko forura biltzeko aukera eskainiz. Halaxe egin zuten hainbat hirik: Elorriok (1712), Bermeoko zenbait Elizatek (1734), Otxandioko zenbait Elizatek (1818), eta Areatzak (1825).

Egungo legeak ere aukera hori irekita utzi die lurralde foru-gabea duten udalerriei:

(1) Prozedura: 1. Legeria zibil orokorra ezargarri duten udalerriek Foru zibil hau euren lurralde guztian ezar dadin aukera egin ahal izango dute, 1630.eko Konkordiaren indarrez eta Konstituzioaren erabaki gehigarrietako lehenengoan eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutuaren 10.5. atalean agintzen denaren arabera, honakook betez gero: a) Udaltzarraren erabakia, aurkako baino aldeko boto gehiagoz. b) Bizkaiko Batzar Nagusien iritzia entzutea. c) Herritarrek onartzea, Udalak deitutako erreferendumean emandako boto baliadunen gehiengoa aldeko izanda. d) Eusko Legebiltzarraren lege bidez onartzea. 2. Asmo horrek aurrera egingo ez balu, bost urtegarrenera arte ezingo litzaioke berriro ekin. (EHFZZLko 10. atala).

(2) Aukera hori zertzen bada, zuzenbide iragankorra aurreikusten da: Bertako herritarrek aurreko atalean zehaztutako urrats guztiekin agerturiko borondatearen ondorioz Foru hau oso-osorik ezartzen bada Hiri bateko lurralde foru-gabekoan, foru-herritasun zibila lortuko dute zuzen-zuzen. Aurreko atalean agindutakoaren arabera ezargarri izan dadin legeria berriak ez du aldaraziko ordura arteko ezkontzen ondasun-jaurpidea, ezkontza-hitzarmenetan horrela erabakitzen ez baldin badute behintzat. Pertsonen arteko eta oinordetza-kontuko harremanetan, aldi-baterako erabakietan agintzen dena ezarriko da (EHFZZLko 11. atala).

3. Gipuzkoa



Lurralde-eremua zehazteko arauak halaxe dio: *Foru honek Gipuzkoako lurralde historiko osoan izango du indarra, bertako arautegi zibila denez* (EHFZZLko 148. atala).

II. PERTSONA EREMUA: AUZOTARTASUN (HERRITASUN) ZIBILA

Euskal Herriko zuzenbide zibilari buruzko Legeak pertsona-eremua zehazteko eman dituen arauak honako hauek dira:

(1) Araba. Legeko 133. atala: 1. *Herritasun zibilak aginduko du Aiarako Forua ezartzerakoan.* 2. *Aiarako Forua ezartzeko orduan, Zuzenbide arruntak arautuko du herritasun zibila.*

(2) Bizkaia. Legeko 12. atala: *Foru zibil honen ondorioetarako, Bizkaiko Lurraldeko herritasun zibila dutenak dira bizkaitarrak. Foru-lurraldeko herritasun zibila duena da forudun edo infantzoia.*

Legeko 13. atala: *Bizkaitar foru-gabekoek elkarrekin edo ermandadean edota eskuordeko bidez egin dezakete testamentua, Foru honetako aginduen esanera.*

Legeko 14. atala: *Bizkaitarrek egin ditzaten Eskribau-agrietan euren herritasun zibila, forudun ala foru-gabeko diren eta, hala badagokie, zein ezkontza-jaurpide duten jaso beharko da, eurek adierazitakoaren arabera.*

Agiria egin nahi duenak berak adierazten ez badu, eta bestelako frogarik ezean, jaio zen tokiari dagokion herritasun zibila duela ulertuko da eta, halaber, senar-emazteen ondasunen jaurpidea elkarrekin izan duten azkenengo bizilekuaren tokiari legez dagokiona dela, edo horrelakorik ez bada, ezkontza egin zen tokikoa.

(3) Gipuzkoa. Legeko 149. atala: *Foru zibil honi dagokionez, Gipuzkoako lurralde historikoan auzotartasun zibila eskuratu duen oro da gipuzkoar.*

Beraz, sistema zibil bat zein bestea aplikatzeko irizpidea edo giltza **auzotartasun zibila** da. Horixe dio Kode zibilak erakunde hori arautzeari ekin aurretik: *la sujeción al derecho común o al especial o foral se determina por la vecindad civil* (KZeko 14.1 art.). Gai hori jorrazteko, PUIG I FERRIOL irakaslearen *Manual de Derecho Civil I* lana jarraituko dugu.

1. Doktrina orokorra

1.1. Kontzeptua

Auzotartasun zibilaren kontzeptua Kode Zibileko 14.1, 15.1 eta 16.1.1 artikuluetan azaltzen da. Zer den adierazteko, bi alderdi izan behar dira kontuan:

(1) Ikuspuntu substantiboa: pertsonen –espainiar nazionalitatea dutenen- eta Estatuaren artean ezartzen den erlazio juridikoa da auzotartasun zibila, zeinaren arabera zehaztuko den haiek Espainiako zein ordenamendu zibiletara menperatuko diren. Ideia horretatik abiatuz, pertsonaren egoera zibil edo kondizio bat da auzotartasun zibila, eta Erregistro Zibilean inskribatzen da (EZLko 1.7 art.).

“El vínculo determinante de tal sujeción es la vecindad civil, que forma parte del estatus de la persona, como la nacionalidad” (1974ko maiatzaren 31ko Dekretuaren hitzaurrea).

(2) Ikuspegi funtzionala (KZeko 4.1 art.): auzotartasun zibila lotura-irizpidea da, Espainian aldi berean dauden zuzenbide zibil desberdinen eremu

pertsonala finkatzeko. Hain zuzen, hori da, nazioarteko zuzenbide pribatuaren aldean, lurralde-arteko zuzenbideak duen berezitasunetako bat: (a) nazioarteko lege-gatazkei buruz, Espainiako zuzenbide zibilaren aplikazio pertsonalaren eremua nazionalitatearen arabera zehazten bada (*cf.* KZeko 9.1 art.); (b) lurralde-arteko lege-gatazken esparruan, ondoren, KZeko 16.1.1 artikulua hau zehazten du: *será ley personal la determinada por la vecindad civil*. Ikuspegi horretatik, eta adierazpena onartzen bada, barne-eraginetarako nazionalitate gisa era daiteke auzotartasun zibila. Lurralde arteko zuzenbideak espainiar hiritarren arteko lege-gatazkak konpondu nahi ditu eta, beraz, nazionalitatea ez da lotura-puntu egokia, parte hartzen duten subjektuek beti espainiar nazionalitatea baitute. Lurralde arteko gatazkak konpontzeko, komeni da nazioarteko artean bereizketa egitea, beste irizpide bat oinarritzat hartuz, hala nola espainiarrei buruz aldarrikatzen den auzotartasun zibil desberdina.

Kode Zibilaren atariko titulua 1973 eta 1974. urteetan erreformatu ondoren, auzotartasun zibila Kodeko 14 eta 15. artikuluetan erregulatzen da. Konstituzioko 149.1.8 artikulua arabera, Estatuak eskuduntza eskusiboa du “beti, lege-gatazkak konpontzeko arauak” emateko, hala nazioarteko eremuan -nazioarteko zuzenbide pribatua-, nola barne-eremuan -lurralde arteko zuzenbidea-:

(1) Estatuaren eskuduntza eskusiboak auzotartasun zibilaren erregulazioa ere barnebiltzen du.

KAE 156/1993: “La disposición impugnada afecta, sin duda, a la vecindad civil y al constituir ésta, según se recordó, punto de conexión para la determinación del estatuto personal es claro que mediante aquélla se viene a incidir sobre un aspecto nuclear del Derecho interregional, sector este del ordenamiento al que la norma constitucional se refiere (junto al Derecho internacional privado) con la expresión «normas para resolver los conflictos de leyes»”.

(2) Halere, auzotartasun zibila erregulatzeko Estatuak duen eskuduntza eskusiboa, praktikan, zertxobait urtu egin da. Egia da, printzipioen mailan, errespetatu egiten dutela Balear Uharteetako Zuzenbide Zibilaren Konpilazioko 2.2 artikulua, Kataluniako Zuzenbide zibilaren Konpilazioko 3.1 artikulua eta Nafarroako Foru Berriko 11. Legeak; baina hori ez da oztopo izan gero, zenbait Autonomia Estatututan eta Konpilazioetan, auzotartasun zibilaren hainbat alderdi erregulatzeko, aurrerago ikusiko denez.

1.2. Auzotartasun zibila eta auzotartasun administratiboa

Kode Zibilak jatorrizko 12. artikuluan zuzenbide zibilaren eremuan lege-aniztasuna ezarri izanak, beharrezkoa egiten du auzotartasun zibilaren kontzeptua finkatzea, bete behar dituen funtzioak kontuan hartuta. Horrek

sortzen duen arazoa hau da: ea gauza bera diren auzotartasun zibila eta administratiboa, eta zein desberdintasun dauden bien artean.

Bereizketaren bilakaera historikoa hauxe izan da:

(1) Arazoaren jatorria bi arau hauetatik dator: (a) Auzotartasun administratiboaren lehen kontzeptua 1877ko urriaren 2ko Udal Legeak bere 2.1 artikuluan jasotzen du: *-auzotarra- todo español emancipado que reside habitualmente en un término municipal y se halla inscrito con tal carácter en el padrón del pueblo.* (b) Gero, Kode Zibileko 15. artikulua zehazten du nori aplikatuko zaizkien Kodeko xedapenak: *3.º A los que procediendo de provincias o territorios forales hubieren ganado vecindad en otros sujetos al derecho común.* Sortzen den zalantza hau da: ea Kode Zibilera lotzeko irizpide gisa azaltzen den auzotartasuna, Udal Legeak jasotako auzotartasun administratiboa den ala ez. Iritzietan onartuena baiezkoa zen. Kode zibilaren gaineko eztabaidetan iritzi hori sarritan kritikatu zen, batez ere Nafarroaren ikuspegitik, lurralde horretan auzotartasun kontzeptuaren irismena eta izaera ez baitator bat auzotartasun administratiboaren kontzeptuarekin.

(2) Ondoren, Kode Zibilaren edizio erreformatuan bereizi egiten dira auzotartasun administratiboa eta auzotartasun zibila. Azken hori, Kodeko 15.3 artikulutik ateratzen da, aipatu besterik egiten ez badu ere. Auzotartasun horri zibil adjektiboa erantsiko zaio, lege 1899ko ekainaren 12ko Errege Dekretuaz gero bakarrik.

(3) Kode zibilaren atariko titulua erreformatu zenean, 1973 eta 1974. urteetan, jatorrizko 15. artikulua egun indarrean dauden 14. eta 15. artikulua izatera pasa zen. Bi artikulua horietan, behin eta berriz auzotartasun zibilaren kontzeptua agertu eta legegileak lurralde arteko zuzenbidearen eremuan lekeen efikazia pertsonala zehazteko erabiltzen duen irizpide bakarra izatera pasatzen da. Auzotartasun administratiboa, berriz, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak - Udal Eraentzaren Oinarriak erregulatzeari buruzkoak- arautzen du 15. eta 16. artikuluetan.

(4) Beraz, gauza bat da auzotartasun zibila eta bestea auzotartasun administratiboa, askotan batera joan badaitezke eta batera joaten badira ere: (a) Auzotartasun zibila espainiar nazionalitatea duten pertsonen egoera zibil edo kondizio gisa eratzen da, eta Espainian indarrean dauden eraentza zibilen aplikazio pertsonalaren eremua finkatzeko ere balio du (*vid.* KZeko 14.1 art.). (b) Auzotartasun administratiboak, berriz, aipatutako Udal Eraentzaren Oinarri Legeak 18. artikuluan zehaztutako eskubide eta betebeharrak esleitzen dizkie auzotarrei; horiek gure azalpenetatik kanpo geratu behar dute, zuzenbide publikoari dagozkion arazoak baitira. (c) Autonomia Erkidego jakin bateko hiritar-izaera politikoaren kategoria ere bereizi behar da -zenbaitetan kargu batzuk betetzeko edo organo politiko

batzuetan parte hartzeko galdatzen baita-. Azken batean, Autonomia Estatutuetan, Autonomia Erkidego jakin bateko hiritar-izaera, espainiar nazionalitatearen eta auzotartasun administratiboaren arabera ezartzen da. Hala eta guztiz, batera agertzen dira, halaber, izaera politikoa eta auzotartasun zibila, lehenengoa, alor juridikoan, pertsonaren egoera zibil gisa ezin era badaiteke ere.

ENZOE 1994/11/24koa (RJ -1995- 1475): “A los efectos del Registro Civil, las menciones de identidad de las personas son las mencionadas en el artículo 12 del Reglamento y entre ellas se cuenta, como han señalado las Circulares citadas, la condición política autonómica derivada de la vecindad administrativa, que constará, si el interesado lo pidiera, en las compareencias, libros y modelos oficiales” (Circulares de 6 noviembre 1980 y de 26 noviembre 1980).

(d) Espainiako legeriak auzotartasun zibila eta auzotartasun administratiboa bereizi ondoren, egungo legegileak erabat eztabaidagarria den zerbait egin izan du: auzotartasun zibila esleitzeko zenbaitetan auzotartasun administratiboaren irizpidea erabiltzen du.

2. Auzotartasun zibila eskuratzea

Auzotartasun zibila zehazteko oinarritzko edo funtsezko irizpide gisa, honako hauek har daitezke:

- (1) *Ius sanguinis* irizpidea: pertsona baten auzotartasun zibila bere progenitoreenak zehazten du, jaiotza-lekua edozein izanik ere.
- (2) *Ius soli* irizpidea: auzotartasun zibila esleitzeko faktore determinatzaileztat lurralde jakin batean jaio izana hartzen da, gurasoen auzotartasun zibila kontuan izan gabe.

Kode Zibilak lehentasuna ematen dio filiazio-irizpideari, zenbaitetan nabarmenki *ius soli* delakoaren alde amore ematen badu ere, batik bat 14. artikulua azken erreformaz gero.

2.1. Filiazioz

Kode Zibileko 14.2 artikulua arabera: *tienen vecindad civil en territorio de derecho común, o en uno de los de derecho especial o foral, los nacidos de padres que tengan tal vecindad.*

Arauari buruzko iruzkinak:

- (a) Manamenduak barnebildu egiten ditu ezkontzako, ezkontzaz kanpoko zein adopziozko filiazioa (KZeko 108.2 art.).

(b) Filiazioa, juridikoki, progenitoreetatik batekiko bakarrik zehaztu bada, ulertzen da horren auzotartasun zibilak emango diola umeari berea; eta progenitoreetako bat atzerritarra baldin bada, horrek auzotartasun zibilik ez duenez, umeak espainiar progenitorearen auzotartasun zibila izango du.

(c) Adoptatutako umei dagokienez, KZeko 14.2.II artikulua hau aurreikusten du: *por la adopción, el adoptado no emancipado adquiere la vecindad civil de los adoptantes*. Funtsean zera gertatzen baita: *la adopción produce la extinción de los vínculos jurídicos entre el adoptado y su familia anterior* (KZeko 178.1 art.). Hortik ondorioztatzen denez, jatorriko familiarekiko lotura juridikoek, salbuespenez, irauten badute (KZeko 178.2 art.), adoptatutako umeak ez du progenitore adoptatzailearen auzotartasun zibila eskuratzen.

Arazorik ez dago gurasoek auzotartasun zibil berbera baldin badute. Baina egungo zuzenbideak onartzen du gurasoek auzotartasun zibil desberdina izatea, ez bakarrik ezkontzaz kanpoko eta adopziozko filiazioetan, baita progenitoreak ezkontzaz bituta daudenean ere (KZeko 14.4 art.). Kasu horietan, umeen auzotartasun zibila zehazteko konponbideak hauek dira:

(1) Kode Zibileko 14.3.II artikulua: *los padres, o el que de ellos ejerza o le haya sido atribuida la patria potestad, podrán atribuir al hijo la vecindad civil de cualquiera de ellos en tanto no transcurran los seis meses siguientes al nacimiento o a la adopción*. Deklarazio hori egiteko eskatzen diren forma-betekizunei buruz ikusi EZEko 226-231. artikulua. Ahalmen hori gurasoek bakarrik egikari dezakete; umearen ordezkariak, ordea, ez.

Gurasoak edo gurasoek ahalmen hori umearen jaiotza Erregistro Zibilean inskribatzeko orduan erabiltzen badu edo badute, auzotartasun zibila jatorriz eskuratzen da; aldiz, gainerakoetan, umearen auzotartasun zibila -jatorrizkoa- aldatu egiten da.

(a) Normalean, Kodeko 154. eta 156. artikuluen arabera, amak eta aitak guraso-ahal bera daukate, eta, beraz, haietako baten auzotartasun zibila aukeratzeak eragina izateko progenitoreek ados jarri behar dute. Desadostasuna badago, erabaki judiziala eskatu beharko da (KZeko 156.2 art.), konponbide horren egokitasuna zalantzan jar badaiteke ere. Horregatik, ez da guraso-ahalaren egikaritzea soileko egintza berez, garrantzi handiagoa duen zerbait baino, *status civitatis* delakoaren eraentzari baitagokio; beraz, kontrako irtenbidea aukeratzeak hau esan nahi du: auzotartasun zibila epaileak inolako oinarri legalik gabe ematea.

(b) Gainerako kasuetan, umeari auzotartasun zibil zehatz bat esleitzeko ahalmena, guraso-ahala egikaritu edo eman zaion progenitoreari bakarrik egotzen zaio (KZeko 111, 156.2, 4 eta 5 eta 170. art.). Kasu horietan, aitak zein amak umeari bere auzotartasun zibilaz gain beste progenitorearena -guraso-

ahalik egikaritzen ez duenarena edo eman ez zaionarena- ere esleitzen diezaioke; izan ere, arauarekin familia barruan lege pertsonalak gehiegi ugaltzea ekidin nahi da.

Manamenduak ezartzen duen sei hilabeteko epea iraungitzekoa da. Ondorioz, epea ahalmena egikaritu aurretik igarotzen bada, behin betiko galduko da bide hori erabiliz umeari auzotartasun zibila esleitzeko aukera.

(2) Gerta daiteke ahalmen hori ez baliatzea. Gurasoek auzotartasun zibil desberdina badute, umearena kasu gehienetan legeak ezartzen dituen irizpide subsidiarioen arabera zehazten da.

(a) Kode Zibileko 14.3.I artikulua hau aurreikusten du: *si al nacer el hijo, o al ser adoptado, los padres tuvieren distinta vecindad civil, el hijo tendrá la que corresponda a aquel de los dos respecto del cual la filiación se haya determinado antes*. Askotan arau horrek ez du konponbide eraginkorrik emango, normalean amatasuna eta aitatasuna aldi berean determinatzen baitira.

(b) Horregatik, legegileak beste irizpide subsidiarioak aurreikusteko ardura izan du. Kodeko 14.1.I artikulua bigarren esaldiak dioenez, umea jaiotzean gurasoek auzotartasun zibil desberdina badute, izaeraz bi aldiz subsidiarioa den irizpidea aurreikusten da: *jaiotza-tokiko* auzotartasun zibila izango du - jaiotza-tokia zehazteari buruz, Erregistro Zibileko liburuetan hura inskribatu izanagatik ikusi EZLko 16. art.-.

(c) Azkenik, Kode Zibileko 14.3.I artikulua hau agintzen du: umeak *zuzenbide erkideko auzotartasuna* izango du. Hondar-arau hori aplikatuko da, normalean, gurasoek auzotartasun zibil desberdinak izan eta, gainera, umea atzerrian jaiotzen denean. Konponbidea kritikagarria da: (a') beharrik gabe lege pertsonalen kopurua biderkatu egiten da familian; (b') Espainian batera bizi diren ordenamendu zibilak parekatzeko printzipioa funtsik gabe apurtzen da.

KAE 226/1993: “Una solución de este género no merece, en sí misma, tacha alguna de inconstitucionalidad, siempre que la misma se articule, claro está, como cláusula final o «de cierre», esto es, siempre que la norma estatal remita al ordenamiento civil común, o atribuya la vecindad también común, luego de haber establecido, tanto en una hipótesis como en otra, conexiones y criterios abstractos y en previsión, por lo tanto, de que los mismos no aporten la solución segura aquí exigible”.

(3) Kode Zibilekoko 14. artikulua, auzotartasun zibila filiazioz eskuratzearren gainean, beste zenbait arazo sortzen ditu:

(a) Gurasoek beren auzotartasun zibila aldatuz gero, beren guraso-ahalaren mendeko umeen auzotartasun zibila ere aldatu behar den edo ez erabaki behar da. Kode Zibilekoko 14.3.III artikulua hau dio: *la privación o suspensión en el ejercicio de la patria potestad, o el cambio de vecindad de los padres, no afectarán a la vecindad civil de los hijos*. Adingabearen duintasun pertsonala zaindu behar da eta haren alor pertsonala ukitzen duten arazoetan bere borondatea aintzat hartu.

(b) Norbaiti guraso-ahala kentzea edo horren egikaritzea etenaraztea (KZeko 170. art.): umeak bere auzotartasun zibilari eutsiko dio, galdu gabe, eta ez du, bere kasuan, beste gurasoarena eskuratuko.

2.2. Leku jakin batean jaio izanagatik

Umeak gurasoak ezezagunak baditu, filiazioa ezin da juridikoki jaso. Kasu horretan, Kode Zibileko 14.6 artikulua aplikatuko da: *en caso de duda prevalecerá la vecindad civil que corresponda al lugar de nacimiento*.

Jaiotza-tokiari buruz zalantzarik balego, Kode Zibileko 17.1.d) artikuluan agertzen den aurreikuspena aplikatu beharko da: jaiotza-tokitzat umea bizi edo egon den tokiari buruzko lehen berriak ematen duen hura hartuko da.

Edonola ere, auzotartasun zibila jaiotza-tokiaren arabera esleitzea bertan behera utziko da filiazioa juridikoki zehaztuta geratzen den unean; umea jaio zen unerainoko atzera-eraginarekin utzi ere (argudioa ex KZeko 112. art.).

Presuntzio bidez, Nafarroako Foru Berriko 14. legeak hau agintzen du: *cuando no sea claramente determinable la condición foral de navarro, prevalecerá ésta si correspondiere por razón del lugar del nacimiento*.

2.3. Aukeraz

Familiaren baitan zenbait lege pertsonal egotea ekiditeko, auzotartasun zibila esleitzeko beste modu bat ezartzen du legegileak: aukeraketa, hau da, aurreko auzotartasun zibila aldatzea, legitimazioa duen pertsonaren borondate-deklarazio bidez eta legeak ezartzen dituen betekizunak errespetatuz.

(1) Forma-betekizunei buruz ikusi EZLko 64.2 art. eta ENZOren 1991ko martxoaren 20ko Instrukzioa.

(2) Legitimazioa: *en todo caso, el hijo desde que cumpla los catorce años y hasta que transcurra un año después de su emancipación, podrá optar bien por la vecindad civil del lugar de su nacimiento, bien por la última vecindad civil de cualquiera de sus padres. Si no estuviera emancipado, habrá de ser asistido en la opción por el representante legal*. (KZeko 14.3.IV. art.).

(3) Aukeratzeko ahalmena:

(a) Arauaren arabera, *edonola ere* ematen da; alegia, umeak aukeratu ahal izango du arauak aurreikusten dituen auzotartasun zibiletako bat, progenitoreek KZeko 14.3.II artikuluan aurreikusten den aukeraketa egina izan arren.

- (b) Umeari bakarrik dagokio, baina hamalau urte betez gero. Gerta liteke:
- (a') Ahalmena egikaritzeko garaian emantzipatuta egotea (KZeko 317., 320. eta 321. artk.); orduan, aukeratzeko gaitasun osoa dauka.
 - (b') Aukeratze-ahalmena emantzipatu aurretik egikaritzea umearen erabaki pertsonala da, baina orduan bere gaitasuna osatu egin behar da. Legezko ordezkariak *laguntza* emango dio, baina ezin du ordeztu umearen erabakia. Umearen legezko ordezkariak progenitoreek izan eta haien artean desadostasuna badago, epaileak hartutako erabakiari heldu beharko zaio (KZeko 156.2. art.). Umearen legezko ordezkariak hainbat tutorek baldin badute (KZeko 236. art.), desadostasun-kasuetan erabakia hartzea pertsonaren tutoreari dagokio; eta gainerako desakordio-kasuetan, Kode Zibileko 237. artikularen prebentzioak aplikatuko dira.
- (4) Aukeraketaren formalitateak betetzeko kontuan hartu EZLko 46, eta 64. artikulak, eta EZEko 226. eta hurrengo artikulak.
- (5) Aukeraketa egikaritzeko epea: umeak hamalau urte betetzen dituenetik kontatuko da, beti ere une horretan borondate-deklarazioa emateko gaitasuna judizialki kenduta ez baldin badauka (KZeko 201. art.); eta, Kode Zibileko 314. artikulak jasotako edozein kausagatik umea emantzipatu denetik kontatuta, urtebete igarotakoan amaitzen da. Epea kaduzitatezkoa da eta, kontaktetarako, Kode Zibileko 5. artikularen prebentzioak hartuko dira kontuan.
- (6) Zer aukeratu: jaio den lekuko auzotartasun zibila edo gurasoetako edonoren azken auzotartasun zibila aukeratzeko baimena ematen da. Bigarren kasuan, aukera egikaritzeko garaian jadanik hilda dagoen progenitorearen auzotartasun zibila ezin da aukeratu; aldiz, bizi den progenitorearen auzotartasun zibila aukeratzea posible da, nahiz hark, aukera egiten duen umearen gainean, guraso-ahalak izan ez.
- (7) Errepikatzeo aukerari buruz eztabaidarik sor daiteke:
- (a) Aldeko jarrera: arauak debekatzen ez duenez, umeak behin baino gehiagotan egin dezake aukeraketa, noski, manamenduko denbora-mugen barruan.
 - (b) Kontrako jarrera: auzotartasun zibila pertsonaren izaera edo kondizio gisa eratzen bada, berez, eta interes orokorren arabera, egonkortasun-itxuraz behintzat jantzi behar da aukera.
- (8) Kode Zibileko 20 eta 21. artikuluen arabera, ezgaituek, beren legezko ordezkarien laguntzarekin, aukeratzeko ahalbidea izatearen alde egiten da, beti ere ezgaitzeko epaiak ontzat hartzen badu; bestela ez.

2.4. Ezkontzaz

Kodearen 14.4 artikulua hau xedatzen du: *el matrimonio no altera la vecindad civil*. Arauak bi ikuspegi ditu:

- (1) Auzotartasun zibil desberdina duten espainiarrak elkarrekin ezkontzen badira, haietako inori ez zaio bere ezkontidearen auzotartasun zibilik ezarriko.
- (2) Ezkontzak irauten duen bitartean ezkontideetako batek bere auzotartasun zibila aldatzen badu, aldaketa horrek beste ezkontidearen auzotartasun zibila ez du mudatuko.

Hala ere, egokiena ezkontide biek auzotartasun berbera izatea litzateke. Horregatik, artikulua badu bigarren araua: *no obstante, cualquiera de los cónyuges no separados, ya sea legalmente o de hecho, podrá, en todo momento, optar por la vecindad civil del otro*.

- (1) Aukeratzeko ahalmena ezkontideetako edonori ematen zaio.
- (2) Beharrezkoa da baliozko ezkontza egotea, Espainiako zuzenbidearen arauen arabera, alegia:
 - (a) Ezkontza deuseza deklaratu bada (KZeko 73. art.), deuseztatze-epaiak lehen zegoen ezkontza-itxura ezabatzen duen unetik jada ezin da pseudo-ezkontidearen auzotartasun zibila aukeratu; baina, aukera ezkontza-itxura zegoen bitartean egin bazen, hark, eraginak sortuko ditu fede onez ezkondu zen ezkontidearen alde (KZeko 79. art.).
 - (b) Ezkontza Kode Zibileko 85. artikulua jasotzen duen edozein kausagatik desegin bada, eta aukeratzeko mota honen helburua kontuan izanda, ezkontide ohiaren auzotartasun zibilik ezin da aukeratu.
 - (c) Legezko zein egitatezko banantze-kasuetan eta ezkontzako krisi-egoera sortzen denetik, beste ezkontidearen auzotartasun zibila aukeratzeko ahalmenik ez du ematen manamenduak; halere, aukera baliozkotu egingo da ezkontideak berriz adiskidetzen badira (KZeko 84. art.).
- (3) Aukera-mota honek daukan xedearen arabera, bi zehaztapen azaldu behar dira: (a) zer aukeratu: aukeraketa egikaritzeko garaian beste ezkontideak duen auzotartasun zibila bakarrik aukera daiteke; (b) errepikatze aukera: ezkontzak irauten duen bitartean aukeraketa berriro ere egin daiteke.
- (4) Aukeratzeko ahalmena txit pertsonala da. Legeak gai honetan ez du gaitasun berezirik eskatzen, logikoa denez; izan ere, aukeratzaila jada emantzipatu da ezkondu delako (KZeko 314.2 eta 316. art.), eta emantzipatuak bere burua goberna dezake adinduna bailitzan (KZeko 323. art.). Legeak ez du eskatzen, ez beste ezkontidearen adostasunik, ez eta bestea jakinaren gainean jarri beharrik ere. Horrek, praktikan, desorekak sor ditzake.

(5) Forma-betekizunak: egokiena EZLko 46 eta 64. eta EZEko 226-229. artikuluek aurreikusten dutenera lotzea da.

ENZOE 1992/11/21 (RJ10591): “Las actas relativas a la nacionalidad o vecindad han de ser levantadas por los Encargados de los Registros Civiles en cuanto tales, sin otra excepción -«a falta de disposición especial»- que la que se da cuando la declaración se formula en países extranjeros en que no exista agente diplomático o consular español (cfr. hoy art. 230 RRC)”.

(6) Bukatzeko, 11/1990 Legeko Xedapen Iragakorrak dioena aipatu behar da: *la mujer casada que hubiere perdido su vecindad civil por seguir la condición del marido, podrá recobrarla declarándolo así ante el registro Civil en el plazo de un año a partir de la publicación de esta ley.*

2.5. Tokian bizitzeagatik

Ikuspegi askotatik pentsa daiteke egokia dela pertsona baten auzotartasun zibila bera bizi ohi den tokian indarrean dagoen ordenamendu juridikoari heltzea ahalbidetzen diona izatea. Baina bat etortze hori ez da beti gertatzen, auzotartasun zibila esleitzeko lehen faktorea filiazioa delako eta, migrazio-prozesuen ondorioz nagusiki, pertsona asko filiazio-irizpidearen arabera dagokion ordenamendu zibil desberdinak indarra duen Autonomia Erkidego batean bizi direlako. Egoera horretan, interesatuak aukera dezake bere auzotartasun zibilari eustea edo hura aldatzea, bere ohiko bizitokiari dagokionari heltzeko. Kasu horretan, auzotartasun zibila alda daiteke bi modu hauen bidez:

2.5.1. Borondate adierazpenarekin

Kode zibileko 14.5. artikulua arabera: *la vecindad civil se adquiere: 1.º Por residencia continuada durante dos años, siempre que el interesado manifieste ser ésta su voluntad.* Kasu horretan, auzotartasun zibilaren aldaketa sortuko da bi betekizun gauzatzen badira:

(1) Lehena, *jarraika bizitokia izatea* edo *ohiko egoitza* -EZEko 225.1 artikulua arabera- eta *egongu* kontzeptua -KZeko 40.1. artikulua ezartzen duena- bat datoz, artikulua horrek hura *pertsonaren ohiko egoitzaren* arabera ezartzen baitu.

Egoitzak segidakoa izateari uzten dio interesduna beste toki batean urtebete eta egun bat baino gehiago bizi izan bada (KZeko 1.944. art.; AGEE 1892/3/29 eta 1958/1/21); horregatik, egokiagoa dirudi ulertzea, egoitzak segidakoa izateari utzi egiten diola interesdunak egongua edo ohiko egoitza aldatzen duenean (AGE 1991/11/15). Hala eta guztiz ere, ez ahaztu gauza bat dela egoitza hori, eta bestea egoitza edo auzotartasun administratiboa.

(2) Borondate-deklarazioa, legeak agintzen dituen betekizunak betetzen dituen (AGE 1994/4/5). Kode Zibileko 14.3.IV artikulutik ondorioztatzen den gaitasuna eskatzen da, hau da, borondate hori adieraz dezake hamalau urtez gorakoak, bere legezko ordezkariaren laguntzarekin, emantzipatu gabe baldin badago. Kode Zibileko 14.5.II artikulua eskatzen duenez, borondate-deklarazio hori Erregistro Zibilean jaso behar da, interesduna bera Erregistroko bulegoetara agertuz edo, EZLko 23. eta EZEko 81. artikuluen arabera, Erregistroan inskriba daitekeen dokumentu egokian adieraziz. Inskripzio horiek jasotzeko zein Erregistro Zibil den eskuduna erabakitzeko, kontuan hartu behar dira Kode Zibileko 20.2 eta EZEko 64. artikulua.

(3) Kode Zibileko 14.5.1 artikulutik ondorioztatzen denez, suposamendu horretan, auzotartasunean aldaketa sortuko da Erregistroan inskripzioa egiten denean.

2.5.2. Tokian bizitze hutsez

Kode Zibileko 14.5 artikulua hau dio: *la vecindad civil se adquiere: (...) 2.º Por residencia continuada de diez años, sin declaración en contrario durante este plazo.*

(1) Jarraika bizitokia izatea: aurreko idatz-atalean esandakoari eutsi behar zaio.

(2) Epea: hamar urtetan jarraika bizitokia izatea. Baina, gaitasun-betekizunari dagokionez, EZEko 225.2 artikulua, zalantzazko egokitasunez ere, hau ezartzen du: *en el plazo de diez años no se computa el tiempo en que el interesado no pueda legalmente registrar su persona.* Ondorioz, adingabeek edo ezgaituek beren kabuz beren bizitokia erabakitzeko aukerarik izan ez duten epea ez da kontatuko, hain zuzen ere haien baitira, eta ez beren legezko ordezkariak, auzotartasun zibila aldatzeari buruzko arazo orokorrak erabaki behar dituztenak (AGE 1992/1/23); hala ere, adingabetasunaren aldia kontatzearen alde agertzen dira zenbait epai (AGEE 1995/2/20, 2000/1/28 eta 2000/8/21).

(3) Eskuratzea: automatikoki aldatuko da auzotartasuna (AGEE 1985-XII-20, 1991-XI-15 eta 1995-II-20koak), baina ez da nahitaezko aldaketa; izan ere, interesdunak, oso modu errazean ekidin dezake auzotartasun zibila aldatze hori, nahikoa baitu lehendik zeukan auzotartasun zibilari eusteko borondatea adieraztea (KZEko 14.5.2 art.). Erregistro Zibilari buruzko Erregelamenduaren 225. artikulua hau zehazten du: *el cambio de vecindad civil se produce ipso iure por la residencia habitual durante diez años seguidos en provincia o territorio de diferente legislación civil, a no ser que antes de terminar este plazo el interesado formule la declaración en contrario* (AGEE 1977/3/2 eta 1977/11/7, 1985/12/20, 1986/10/6, 1991/11/15 eta 1995/2/20, eta Kataluniako Auzitegi Nagusiko Epaia 1999/5/13).

3. Auzotartasun zibila eta nazionalitatea

Printzipio gisa, 18/1990 Legeak, abenduaren 17koak, nazionalitatearen eremuan Kode Zibila erreformatzeari buruzkoak, hau dio hitzaurrean: *los criterios para fijar ésta (la vecindad civil del extranjero que se nacionaliza español) tendrán en cuenta, en lo sucesivo, en la medida de lo posible, la voluntad del interesado, suprimiéndose la preferencia injustificada hasta ahora otorgada a la vecindad civil común.*

3.1. Kode Zibilak ematen duen konponbidea

Atzerritarra nola naziokotu den kontuan hartuz:

(1) Espainiar nazionalitatea aukeraz (KZeko 19.2 eta 20. art.) edo tokian bizi izanagatik (KZeko 21.2. art.) eskuratu bada, KZeko 15.1 artikuluan hau agintzen da: *el extranjero que adquiere la nacionalidad española deberá optar, al inscribir la adquisición de la nacionalidad, por cualquiera de las vecindades siguientes: a) La correspondiente al lugar de residencia. b) La del lugar del nacimiento. c) La vecindad civil de cualquiera de sus progenitores o adoptantes. d) La del cónyuge.*

(a) Aukeratu beharra: espainiar naziokotzen den atzerritarrari Kode Zibileko 23. artikuluko prebentzio orokorrak bete beharra eskatzeaz gain, Kode Zibileko 15.1 artikuluan biltzen diren auzotartasun zibil posibleetatik bat aukeratu beharra ere ezartzen zaio -18/1990 Legeko hitzaurreak hau adierazten baitu: *todo extranjero que adquiere la nacionalidad española ha de adquirir también determinada vecindad civil-*.

(b) Aukeratu beharra egikaritzeko gaitasun-betekizunei dagokienez, Kode Zibileko 15.1.ii artikulua hau dio: *esta declaración de opción se formulará, atendiendo a la capacidad del interesado para adquirir la nacionalidad, por el propio optante, por sí o asistido de su representante legal, o por este último. Cuando la adquisición de la nacionalidad se haga por declaración o a petición del representante legal, la autorización necesaria deberá determinar la vecindad civil por la que se ha de optar.*

Erregistroen eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorren 1991eko martxoaren 20ko Instrukzioak, nazionalitateari buruzkoak, bere I. idatz-zatian hau zehazten du: *si la adquisición de la nacionalidad española se ha producido por opción formulada por el representante legal [art. 20.2.a) CC] o a consecuencia de una solicitud de residencia presentada por el mismo representante legal [art. 21.3.c) y d) del CC], la autorización del encargado deberá determinar ya previamente la vecindad civil por la que se ha de optar (cfr. art. 15.1 in fine CC).*

(c) Aukera hori Erregistro Zibilean inskribatzea: EZLko 64. art. eta 1991eko Instrukzioaren aipatutako I. idatz-zatia. Alderatu ere EZLko 226., 227. eta 228. artk.

(2) Nazionalitatea naziokotze-gutun bidez eskuratzen bada (KZeko 21.1 art.), Kodeko 15.2 artikulua hau agintzen du: *el extranjero que adquiera la nacionalidad por carta de naturaleza tendrá la vecindad civil que el Real Decreto de concesión determine, teniendo en cuenta la opción de aquél, de acuerdo con lo que dispone el apartado anterior u otras circunstancias que concurran en el peticionario*. Interesdunak egindako aukera ez da loteslea Gobernuarentzat.

3.2. Espainiako zuzenbideak eskaintzen dituen beste konponbide batzuk

Autonomia Estatuetan arau hauek daude:

(1) Kataluniakoak 7.2 artikuluan hau dio: *los extranjeros que adquieran la nacionalidad española quedarán sujetos al derecho civil catalán mientras mantengan la vecindad administrativa en Cataluña, salvo que manifestaran su voluntad en contrario*.

(2) Balear Uharteetakoak 6.2 artikuluan hau dio: *los extranjeros que, teniendo vecindad en cualquiera de los municipios de las islas Baleares, adquieran la nacionalidad española quedarán sujetos al Derecho civil especial de las islas Baleares mientras mantengan esta vecindad y salvo el caso de que manifiesten su voluntad en contrario*.

Estatutuko arau horiek azaltzen duten arazoa hau da: ea Konstituzioko parametroetara egokitzen diren, Konstituzioko 149.1.8 artikulua arabera *kasu guztietan* Estatuari baitagokio eskuduntza eskusiboa gai honetan.

(1) Estatutuak lege estatal eta organikoak dira; aldi berean Autonomia Erkidego bakoitzeko ordenamendu juridiko ere badira. Beraz, lege arruntak – Kode Zibilak- ezin ditu aldatu.

(2) Kontrako zentzuan, esan liteke Kodeko 15. artikulua indarra Espainia osoan duela Konstituzioko 149.1.8 artikulua arabera, Estuari dagokion eskuduntza eskusibokoa den gaia arautzen baitu.

Arau horien konstituziokotasuna onartu arren, beren aplikazioa Kode Zibileko 15. artikulua murrizten du. Naziokotu nahi duen atzerritarrari artikulua berak zehazten dituen auzotartasun zibiletako bat aukeratu beharra ezartzen zaio, eta Estatuetan aurreikusitakoa aplikatzeko bidea itxi egiten da: balear zein kataluniar auzotartasun zibila kontrako borondaterik adierazi ezean ematen baita, eta, Kode Zibileko 15.1 artikuluko eskakizuna betez, deklarazio hori jadanik egin da. Dena den, azken aldi honako hau zehaztu da: Kode zibileko 15.1 artikulua arabera, auzotartasun zibil balearra edo katalana ez eta beste aukera bat adierazi bada, Kataluniako edo Balearretako zuzenbide zibilera ez lotzeko borondate-adierazpen gisa hartu behar da, hurrenez hurren, beren Estatutuko 7.2 eta 6.1 artikuluen arabera.

Espainiar naziokotasuna eskuratu duenari auzotartasun zibil jakin bat aukeratzeak Espainiako zuzenbideetako bati lotzea eragingo dio, hain zuzen

auzotartasun zibilaren arabera eta ez auzotartasun administratiboaren arabera. Antzeko arrazoiengatik, Kode Zibileko 15. artikuluko berriak, Nafarroako Foru Berriko 13. legean agertzen den auzotartasun zibilaren presuntzioa ere ukitzen du; lege horren arabera: *en el expediente de adquisición o recuperación de la nacionalidad española, se presumirá que adquiere la condición foral de navarro el extranjero que residiere en Navarra al conseguir la nacionalidad.*

Estatutuaren estalkirik gabe, EHFZLko 16.2 artikulua haxe ezartzen du: *atzeritarrek bizkaitar forudunen herritasuna izango dute espainiartasuna hartzerakoan lurralde forudunean administrazio-herritasuna badute, espainiartzeko espedienteen aurkako aukerarik adierazi ezean.* Manamendu horien konstituziokotasuna eztabaidagarriagoa da. Hala eta guztiz ere, euskal 3/1992 Legeko zenbait artikuluren aurka ezarritako konstituzio-kontrakotasuneko helegiteak manamendu hori ez zuen ukitu eta, lehen azaldutako arrazoi berak kontuan hartuz, bere egokitasuna ere zalantzan jar daiteke.

4. Auzotartasun zibila kontserbatzea

Hamar urtez jarraian toki batean bizitzeagatik auzotartasun zibila eskuratzea eta, ondorioz, aldatzea automatikoki gertatzen da, baina ez da derrigorrezkoa. Izan ere, aldatzea ekidin daiteke, baldin eta interesdunak hamar urteko epean zehar –edo barruan- izan duen auzotartasun zibilari eusteko bere borondatea adierazten badu (AGE 1977/11/7). Kode Zibileko 14.5.2.II artikulua zehazten duenez, interesdunaren deklarazio hori Erregistro Zibilean jaso eta errepikatu beharrik ez dago; EZLko 65.2 artikulua ere, ostean errepikatzeko beharrik eza jasotzen du, *edozein izanda ere igarotako denbora eta bizitoki aldaketak.* Baina, ulertu beharra dago, auzotartasun zibilari eusteko nahia adieraztea, izaeraz ez dela errebokaezina, interesatuari bere bizitokiko auzotartasun zibila eskuratzeko borondatea agertzeko aukera ematen baitio adierazpena legezko betekizunekin bat egiten bada.

Norbaitek bere bizitokiko auzotartasun zibila borondatea adieraziz eskuratu badu eta, gero, beste ordenamendu zibil batek indarra duen lekuan hamar urte baino gehiago bizi izan bada, borondatea adieraziz eskuratu zuen auzotartasun zibilari eusten dio, EZLko 65.3 artikulua arabera.

Nafarroako Auzitegi Nagusiko Epaia 1994/3/3 (RJ 2115): “lo que no es posible aceptar es la tesis que indica la sentencia impugnada de que la vecindad ganada en virtud de declaración expresa, con residencia de dos años, ley 11 del Fuero Nuevo de Navarra, en relación con el art. 14.5.1.º del Código Civil, se pierda por residencia continuada en otro territorio durante diez años sin declaración en contrario, porque aquella declaración, con constancia en el Registro, no necesita ser reiterada para conservar la vecindad de dicha forma adquirida”.

Nafarroako Foru Berriaren 12.1 legeak hau zehazten du: *los navarros residentes en el extranjero no perderán su condición foral en tanto conserven la nacionalidad española. Los que adquieren nacionalidad extranjera sin perder la española, conservarán también la condición foral navarra.* Galiziako Zuzenbide Zibilari buruzko Legearen 5.2 artikulua honako hau dio: *los gallegos que residan fuera de Galicia tendrán derecho a mantener la vecindad civil gallega con arreglo a los dispuesto en el Derecho Civil Común y, en consecuencia, podrán seguir sujetos al Derecho civil gallego.*

Norbait atzerriko herrialde batean urte askoan bizi izan bada, baina espainiar nazionalitateari eutsi badio, Espainiatik joan zenean zeukan auzotartasun zibil berberari eutsi dio aldi berean (AGE 1925/3/18).

5. Auzotartasun zibila berreskuratzea

Espainiar nazionalitatea berreskuratzeko, legegileak, *ex novo* eskuratzeko baino izapide errazagoak ezartzen dituen bitartean, ez da gauza bera gertatzen auzotartasun zibilarekin. Halere, egokia izango litzateke berreskuratzeko izapideak samurtzea, batez ere berreskuratu nahi den auzotartasun zibila jatorrikoa denean.

Auzotartasun zibila berreskuratzeari buruz Kode Zibilean agertzen den arau bakarrak, 15.3 artikulua, hau dio: *la recuperación de la nacionalidad española lleva consigo la de aquella vecindad civil que ostentara el interesado al tiempo de su pérdida.* Era berean, Nafarroako Foru Berriko 12.2 legeak honako hau ezartzen du: *los navarros que hubieren perdido la nacionalidad española, al recuperarla recobrarán también su condición foral.*

6. Auzotartasun zibila frogatzea

Auzotartasun zibila frogatzeak duen zailtasuna jartzen du agerian 1964/6/23ko ENZOEak: auzotartasun zibilari aldeko onespina emateko edo auzotartasun zibila Erregistro Zibileko inskripzioan oinarritzeko nahiko daturik ez dago Erregistro Zibilean; beraz, gainerako froga-baliabideak erabiliz egiaztatu beharko da.

(1) Zenbaitetan, praktikan gutxienetan, posible da Erregistroko inskripzioaren bidez auzotartasun zibila egiaztatzea; esaterako aukeraketa-kasuetan edo toki horretan bi urte bizi eta borondatez deklaratu izan denean.

(2) Gainerako kasuetan, eta zehazki filiazioz eskuratzen den auzotartasun zibilarentzat, EZLko 68. artikulua hau agintzen du: pertsonak jaiotza-tokiari

dagokion auzotartasun zibila du, betiere bere gurasoak toki horretan bertan jaino baziren. Erregelak erabilgarritasun argi bat dauka eta konponbide zuzena eskaintzen du, zeren eta, kasu gehienetan, egia da Autonomia Erkidego jakin batean jaiotako bigarren belaunaldia izanda, umeak *iure soli* dagokion auzotartasun zibila duela, bai filiazioagatik eta bai tokian bizitzeagatik (ENZOE 1980/11/6).

(3) Aipatutako ENZOEk 1964/6/23koak ezartzen duenez, auzotartasun zibila egiazta daiteke ere *espediente gubernatibo* bidez, EZLko 96.2 artikulua hura Erregistroan jasotzen ez den kasurako presuntzio soilaren balioarekin espedientean deklaratu daitekeela aurreikusten baitu. Espediente hori, EZEko 335. eta hurrengo artikuluek eskatzen dutenaren arabera izapidetuko da.

(4) Auzotartasun zibila egiazta daiteke ere agerikotasun-akta bidez, Notaritza Erregelamenduko 209. artikuluko izapideei jarraituz.

(5) Kontrako frogarik ez balego, zuzentzat hartzen da presuntzio hau: pertsonak egongu baten tokiko auzotartasun zibila duela, batez ere auzia erabaki behar duen organismo juridikzionalaren eskuduntzarenarekin bat baldin badator (AGE 1995/2/20 -RJ 2771-).

III. EREMU FUNTZIONALA GIPUZKOAN

Lege zibila aplikatzeko funtsezkoa da lehenik non aplikatuko den zehaztea – lurralde-eremua- eta, gero, nori aplikatuko zaion zehaztea – pertsona-eremua-. Gipuzkoako zuzenbide zibila aplikatzeko, ordea, funtsezko beste elementu bat izan behar da kontuan: eremu funtzionala.

Izaeraz zerbait atipikoa da, beste inongo legetan ez baita agertzen. Baina beharrezko den erreferentzia da legeak lortu nahi duen helburua zertzeko: baserria transmititzeko.

Hain zuzen, 150. atalak hau dio: *Gipuzkoan kokatutako baserria duten gipuzkoarrek foru zibil honetan adierazitako baliabideak erabili ahal izango dituzte baserria eskualdatzeko, elkarrekiko testamentuari buruz 172. ataleko 2. zenbakian xedatutakoaren kalterik gabe.*

Eremu berezi hori zehazteko, beharrezko da, halaber, objektua definitzea. Horretara dator 151. atala: *Baserria etxebizitzak berak eta hari lotutako gainerako eraikin, areto, lursail eta ondazilegiek osatzen dute, bai eta, baserriaren ustiaketari, ustiatzen bada, atxikitako ondasun higigarriek, aziendek eta makinek ere.*

Gainera, interpretaziozko arau bat ematen da, trafikoan elementu bakartzat kontsideratzeko: *Baserriaren eta hari lotutako ondasunen doako eskualdaketak aurreko atalean adierazitako guztiak hartuko ditu barruan, aurkako xedapenik ezean.*

Eremu funtzionalean salbuespen bakarra dago: testamentu mankomunatua emateko aukera du, orobat, gipuzkoar horren ezkontideak (172. atala).

IV. LEGE GATAZKAK

Ordenamendu zibil eta auzotartasun desberdinak baldin badaude, lege-gatazkak sortzea ohiko arazoa izango da. Are gehiago, lurralde txikian biltzen badira; esaterako, Araban, hiru ordenamendu zibil daude, eta Bizkaiako zenbait udalerritan, bi. Pertsona bakoitzari auzotartasun zibil bat ematen baldin bazaio ere, lurralde batetik bestera bizitokiz aldatzen bada edo harreman juridikoak beste auzotartasun zibil bat duen norbaitekin sortzen baditu, erabaki beharra gertatzen da zein zuzenbide zibil aplikatu bere egoera eta harreman zibilak arautzeko.

1. Araudia

(a) Konstituzioko 149.1.8 artikulua:

El Estado tiene competencia exclusiva sobre las siguientes materias: En todo caso (...) normas para resolver los conflictos de leyes.

(b) EHFZZLko 16. atala:

Berriazko araurik ez balego, Bizkai barruan lege-bide desberdinak batera egoteak biztu ditzan lege-gatazkak arau orokorrak erabilita ebartziko lirateke, erakunde bakoitzaren izaeraren arabera.

Atzerritarrek bizkaitar forudunen herritasuna izango dute Espainiartasuna hartzerakoan lurralde forudunean administrazio-herritasuna badute, espainiartzeko espedienteen aurkako aukerarik adierazi ezean.

(c) Kode Zibileko 16. artikulua:

1. Los conflictos de leyes que puedan surgir por la coexistencia de distintas legislaciones civiles en el territorio nacional se resolverán según las normas contenidas en el capítulo IV con las siguientes particularidades:

1ª Será ley personal la determinada por la vecindad civil.

2ª No será aplicable lo dispuesto en los apartados 1, 2 y 3 del artículo 12 sobre calificación, remisión y orden público.

2. El derecho de viudedad regulado en la Compilación aragonesa corresponde a los cónyuges sometidos al régimen económico matrimonial de dicha Compilación, aunque después cambie su vecindad civil, con exclusión en este caso de la legítima que establezca la ley sucesoria.

El derecho expectante de viudedad no podrá oponerse al adquirente a título oneroso y de buena fe de los bienes que no radiquen en territorio donde se reconozca tal derecho, si el contrato se hubiera celebrado fuera de dicho territorio, sin haber hecho constar el régimen económico matrimonial del transmitente.

El usufructo viudal corresponde también al cónyuge superviviente cuando el premuerto tuviese vecindad civil aragonesa en el momento de su muerte.

3. Los efectos del matrimonio entre españoles se regularán por la ley española que resulte aplicable según los criterios del artículo 9 y, en su defecto, por el Código civil. En este último caso se aplicará el régimen de separación de bienes del Código civil si conforme a una y otra ley personal de los contrayentes hubiera de regir un sistema de separación.

2. Lotura puntuak

(1) Lege **pertsonala**, auzotartasun zibilak zehazten duena:

(a) Ezkontzako eraentza ekonomikoari buruzko arazoetarako:

(a') Kode Zibileko 9. artikulua: 2. Los efectos del matrimonio se regirán por la ley personal común de los cónyuges al tiempo de contraerlo; en defecto de esta ley, por la ley personal o de la residencia habitual de cualquiera de ellos, elegida por ambos en documento auténtico otorgado antes de la celebración del matrimonio; a falta de esta elección, por la ley de la residencia habitual común inmediatamente posterior a la celebración, y, a falta de dicha residencia, por la del lugar de celebración del matrimonio. La nulidad, la separación y el divorcio se regirán por la ley que determina el artículo 107. 3. Los pactos o capitulaciones por los que se estipule, modifique o sustituya el régimen económico del matrimonio serán válidos cuando sean conformes bien a la ley que rija los efectos del matrimonio, bien a la ley de la nacionalidad o de la residencia habitual de cualquiera de las partes al tiempo del otorgamiento.

(b') EHFZZLko 94. atala: Itunik egon ez dadinean, hurrengo kasuotan ulertuko da ezkongaiak foru-komunikaziopean ezkontzen direla: biak forudun bizkaitarrak direnean; biok herritasun hori ez dutenean, batera bizitzeko izan dezaten lehenengo ohizko egoitza Lur Lauan badago; eta baterako egoitza hori izan ezean, Lur Lauan ezkondu badira.

(b) Oinordetza:

(a') Kode Zibileko 9. artikulua, ondasunak non dauden kontuan izan gabe: 8. La sucesión por causa de muerte se regirá por la ley nacional del causante en el momento de su fallecimiento, cualesquiera que sean la naturaleza de los bienes y el país dónde se encuentren. Sin embargo, las disposiciones hechas en testamento y los pactos sucesorios ordenados conforme a la ley nacional del testador o del disponente en el

momento de su otorgamiento conservarán su validez, aunque sea otra ley que rija la sucesión, si bien las legítimas se ajustarán, en su caso, a esta última. Los derechos que por ministerio de la ley se atribuyan al cónyuge superviviente se regirán por la misma ley que regule los efectos del matrimonio, a salvo siempre las legítimas de los descendientes.

(b') EHFZZLko 25. atala, tronkalekotasuna babesteko: *Bizkaitar forudun ez direnek askatasuna dute tronkaleko ondasunak lehentasunezko belauneko tronkaleko edozeini dohain eskualdatzeko, baina hartzaileak ezingo du hartukizunik izan tronkaleko ez diren ondasunetan, ondasunokin gainontzeko senipartedunei euren legezko seniparte laburra eman arte. Alderatu legeko 62. atala, ondasun tronkalak eta senipartea konputatzeko.*

(2) Lotura **erreal**a: eskubide errealei buruzko arazoetarako.

(a) EHFZZLko 23. eta 24. atalak, tronkalekotasuna babesteko:

23. atala. *Tronkaletik datozen eskubide eta betekizunak Bizkaiko herritar zibil guztiei dagozkie, bizkaitar direnez. Tronkalaren beraren izaeragatik, bizkaitar-herritasuna galtzeak ez ditu ezertan murriztuko beraren indarrez izandako eskubide eta betekizunak.*

24. atala. *Tronkaleko ondasunak kanpoko inori zein eskualdatzailearen lehentasunezko belauneko ez den inolako senideri eskualdatzeko dohaineko ekintzak, "inter vivos" edo "mortis causa"zkoak, berez izango dira lege-baliogabeak.*

(b) Bizkaitarrentzat eta Arabar forudunentzat –Aiararrak saihestuz, noski-, Aramaion eta Laudion dauden ondasunak ere, lurralde forudunekoak direla ulertu behar da.

(3) **Lurraldea**: arazo formaletarako.

(a) Kode zibileko 11. artikulua:

1. Las formas y solemnidades de los contratos, testamentos y demás actos jurídicos se regirán por la ley del país en que se otorguen. No obstante, serán también válidos los celebrados con las formas y solemnidades exigidas por la ley aplicable a su contenido, así como los celebrados conforme a la ley personal del disponente o la común de los otorgantes. Igualmente serán válidos los actos y contratos relativos a bienes inmuebles otorgados con arreglo a las formas y solemnidades del lugar en que éstos radiquen. Si tales actos fueren otorgados a bordo de buques o aeronaves durante su navegación, se entenderán celebrados en el país de su abanderamiento, matrícula o registro. Los navíos o las aeronaves militares se consideran como parte del territorio del Estado al que pertenezcan.

2. Si la ley reguladora del contenido de los actos y contratos exigiere para su validez una determinada forma o solemnidad, será siempre aplicada, incluso en el caso de otorgarse aquéllos en el extranjero.

3. Será de aplicación la ley española a los contratos, testamentos y demás actos jurídicos autorizados por funcionarios diplomáticos o consulares de España en el extranjero.

(b) EHFZZLko 29. atala: *Legeria zibil orokorrean araututako testamentu-moduez gain, "hil-buruko" testamentua ere onartzen da lurralde forudunean.*

III. IRAKURGAIK

- ÁLVAREZ RUBIO, Juan José (1999): "Los conflictos de leyes en la Ley vasca de 1 de julio de 1992", *Conflictos de leyes en el desarrollo del Derecho Civil vasco: Jornadas de estudio*, Bilbo, RSBAP, 91-122. or.
- (2001): "La vecindad civil como conexión general del sistema de Derecho interregional y el Derecho civil vasco: análisis en clave funcional", *Revista Española de Derecho Internacional*, 53.liburukia, 1. zk., 75-103. or.
- ARRIOLA ARANA, José María (1995): "Vecindad civil y nulidad de testamento", *Revista Jurídica del Notariado*, 9-50. or.
- ASÚA GONZÁLEZ, Clara Isabel (1991): "Algunas cuestiones en relación al régimen civil aplicable a los efectos del matrimonio entre personas de distinta vecindad civil : el párrafo tercero del artículo 16 del Código Civil", *Revista Jurídica de Castilla - La Mancha*, 11-12, zk., 73-88. or.
- BERCOVITZ RODRÍGUEZ-CANO, Rodrigo eta Nazaret PÉREZ DE CASTRO (1996): *La vecindad civil*, Madrid, La Ley.
- CELAYA IBARRA, Adrián (1994): "La vecindad civil en Vizcaya tras las últimas reformas", *Revista de Derecho Privado*, 619-638. or.
- GOIKOETXEA OLEAGA, Lorenzo (1999): "Proceso de opción regulado en los artículo 10 y 11 de la LDCFPV", *Conflictos de leyes en el desarrollo del Derecho civil vasco: Jornadas de estudio*, Bilbo, RSBAP, 137-177. or.
- ROMERO HERRERO, Honoria (1995): "Determinación del régimen económico matrimonial. Conflictos interregionales", *Revista Jurídica del Notariado*, 14. zk., 91-157. or.

IV. AZTERTZEKO EPAIA

AGE 1994/4/5 (RJ2933):

- TORRES GARCÍA, Teodora Felipa (1994): *Cuadernos Civitas de Jurisprudencia Civil*, 35. zk., 787-801. or.
- FERNÁNDEZ DOMINGO, Jesús Ignacio (2003): "¿Es posible la adquisición de la Vecindad Civil en fraude de ley? : Comentario a la sentencia del Tribunal Supremo de 5 de abril de 1994", *Anuario Español de Derecho Internacional Privado*, 3. zk., 293-326. or.
- ZABALO ESCUDERO, Elena (1994): "El fraude de ley en el derecho interregional. Comentario a la sentencia del Tribunal Supremo de 5 de abril de 1994", *Poder Judicial*, 36. zk., 397-402. or.

V. ARIKETAK

1. Testua komentatu

EZANE 1992-09-10 (RJ10269):

La citada disposición establece: «Los vizcaínos, aunque residan en territorio distinto del foral de Vizcaya, si hubiere parientes tronqueros, sólo podrán disponer a título gratuito *inter vivos* o *mortis causa* de los bienes troncales en favor de aquéllos».

La interpretación lógico-sistemática e histórica del precepto conduce a sostener su aplicabilidad a todo vizcaíno, sea o no aforado, y ello, por las siguientes razones: 1.^a) Porque en la Compilación no es equiparable el concepto de vizcaíno con el de vizcaíno aforado, según puede colegirse de la lectura de preceptos en los que se alude a «vizcaínos» (arts. 5 y 10), y de otros en los que se precisa «vizcaíno infanzón» (arts. 41 y 42); 2.^a) Porque, de estar referido únicamente a los vizcaínos aforados, su inclusión en el citado Texto Legal sería innecesaria y carente de sentido; y 3.^a) Dicho resultado interpretativo es el que ofrece el análisis de los hitos históricos y normativos que guardan relación con el precepto.

Dichos antecedentes, sucintamente expuestos, son los siguientes:

A) La Ley 15, del Título XX, del Fuero de Vizcaya de 1526, establecía: «Que los vecinos de las villas, que tuvieren bienes en la Tierra Llana, guarden el Fuero en disponer de ellos». «Otro sí dijeron: Que habían de Fuero, y establecían por Ley, porque acaece, que algún vecino de la villas de Vizcaya entre otras tierras, y heredades, que tienen sitas en el juzgado de la tal villa de donde es, tiene, y posee otras tierras y heredades, sitas en el juzgado y Tierra Llana, y así troncales; y acaece que el tal suele disponer de las tales tierras troncales por sí, o por vueltas con las otras heredades de la tal villa, ahora en vida, ahora en muerte, y ponen duda, si de los tales bienes troncales ha de disponer, según que de los otros que no son troncales. Por ende, dijeron: Que ordenaban, y ordenaron, que el tal vecino de villa, do los bienes (según Ley del Reino) son partibles; que la tal raíz que tuviere en la Tierra Llana y juzgado de Vizcaya, sea de la condición y calidad, privilegio y Fuero que la otra raíz que poseen los vizcaínos de la Tierra Llana troncal; y tal, que en vida y en muerte pueda disponer de ello, como podía disponer el vizcaíno vecino de la Tierra Llana; y sean admitidos para la tal raíz los tronqueros profincos, como y según se admiten a los bienes, que poseen, venden, y mandan los vizcaínos, vecinos de Tierra Llana».

B) En la segunda edición del Código Civil, Texto Reformado de 24-7-1889, a instancia de los representantes vizcaínos, se añadió el párr. 3.º al art. 10 del citado Cuerpo legal, a cuyo tenor «Los vizcaínos, aunque residan en las villas, seguirán sometidos, en cuanto a los bienes que posean en la Tierra Llana, a la Ley 15, título XX del Fuero de Vizcaya»; párrafo que ha estado vigente hasta la reforma del Título Preliminar, llevada a cabo por el Decreto de 31-5-1974, dictado en desarrollo del texto de la Ley de Bases de 17-3-1973.

C) La Comisión Especial para elaborar el Apéndice Foral de Vizcaya y Álava, constituida en cumplimiento de lo establecido en el art. 4.º de la Ley de Bases de 1888, elaboró un Proyecto elevado a la Comisión General de Codificación el día 10-2-1900, cuyo art. 13 disponía: «Habiendo parientes tronqueros de cualquier línea que sean, nadie podrá disponer en vida ni por causa de muerte, en favor de quien no tuviera tal carácter, de bienes troncales algunos, sea cual fuere la naturaleza del propietario o su vecindad. Esta prohibición se hace extensiva a la capacidad para suceder *ab intestato*». Proyecto de Apéndice que no llegó a convertirse en Ley.

D) El Colegio de Abogados de Vizcaya llevó a cabo la elaboración de un segundo proyecto, publicado el día 9-2-1928, cuyo art. 12 establecía: «Habiendo parientes

tronqueros, de cualquier línea que sean, los vizcaínos, aunque residan en las villas, no podrán disponer en vida ni por causa de muerte en favor de quien no tuviere aquel carácter, de bienes troncales algunos. La prohibición será extensiva a la capacidad para suceder *ab intestato* en estos bienes».

El resultado exegético alcanzado se ve adverbado por la recientemente publicada Ley 3/1992, de 1 julio (LPV 1992\266), del Derecho Civil Foral del País Vasco, dictada por el Parlamento Vasco, de próxima vigencia, de cuyos preceptos, en lo que aquí interesa, merecen especial mención: a) En lo que respecta al concepto jurídico «vizcaíno», el art. 12, a cuyo tenor: «A los efectos de este Fuero Civil, son vizcaínos, quienes tengan vecindad civil en el Territorio Histórico de Bizkaia. Aforado o Infanzón es quien tenga su vecindad en territorio aforado»; el art. 13: «Los vizcaínos no aforados, podrán...»; y el 14: «En los instrumentos públicos que otorguen los vizcaínos se hará constar su vecindad civil, su carácter de aforado o no, y, en su caso...». b) En lo atinente al ámbito personal de la troncalidad, el art. 23 dispone: «Los derechos y obligaciones derivados de la troncalidad corresponden, como vizcaínos, a todos los que tengan vecindad civil en Bizkaia. Por esencia de la troncalidad, la pérdida de la vecindad vizcaína no supone restricción alguna en los derechos y deberes de cualquier naturaleza derivados de la misma.»; el 24, sucesor del art. 10 de la, todavía vigente, Compilación: «Los actos de disposición de bienes troncales realizados a título gratuito *inter vivos* o *mortis causa*, a favor de extraños o de parientes que no pertenezcan a la línea preferente de quien transmite, serán nulos de pleno derecho»; y el 25: «Quienes no sean vizcaínos aforados gozarán de libertad para disponer, a título gratuito, de los bienes troncales a favor de cualquiera de los parientes tronqueros de línea preferente...».

2. Kasu praktikoa

Alderatu eta egiaztatu testu honetan adierazten diren lurraldeen oinordetza-sistemak:

“Aunque la libertad de testar ayalesa es mucho más amplia que la vizcaína, aragonesa y catalana, y sólo se asemeja a la navarra, pues el padre puede apartar a los hijos de la herencia y dársela a extraños, el espíritu de tradición y la moralidad de los hijos de Ayala hace que tal apartamiento no ocurra mas que en algún caso raro y excepcional” (Juan María URIARTE LEBARIO, *El fuero de Ayala*).